

# BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES

Temporada Otoño 2020 *Udazkeneko Denboraldia*



Antolatzailea / Organizador

Babeslea / Patrocinador

Dirulaguntzak / Subvencionan



TEATRO ANTZOKIA  
**PRINCIPAL**  
VITORIA-GASTEIZ



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Interreg  
POCTEFA  
MICAP  
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

**Vital**  
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA

Laguntzaileak / Colaboran

Bazkidetza / Asociada a

EL CORREO  
PARTE DE TI ZURE BAITAN




Casa del Libro



BIARGI SAREA

## Antzerkiarekin Elkartzea

*Gaur egungo ziurgabetasun orokor nabarmeneko egoeran, larrialdi-konponbideak irudikatzen saiatu gara, bizitzen ari garen ohiz kanpoko egoera kulturari eta heziketakoari erantzuteko. Proiektuari ekin diogu dramagile apartaren hitzak jarraituz:*



*Badakigu heziketa-ohizkotasunera itzultzeak zuzeneko toki kulturalak sortzea behar izango duela, geure burua izaki sozialtzat berreraiki ahal izateko eta izan ditugun emozioak behar bezala adierazteko. Ildo beretik, Beñat Etxepare Antzokiaren proiektua moldatu beharko genukeela uste dugu, ikastetxeei laguntzeko, konfinamendutik atera garela ospatzeko, eta komunitateko bizitzaz gozatzeko.*

*Umeek eskubideak dituzte, eta ez dira etorkizuneko herritarrak bakarrik, baita oraingo herritarrak ere.*

*Horregatik, publikoa antzokira itzultzeko ibilbidea zehaztu ahal izateko zenbait aukera proposatuko ditugu. Udalaren Antzoki Sareak eta Paraíso Antzerkiak proiektuaren erabiltzaileekin konpromiso handia hartu dute, eta era aktiboan lan egingo dute ikasturteko itzulera Kulturarekin eta Zuzeneko Arteekin berriz elkartzea izan dadin.*

## Reencuentro seguro con el Teatro

En esta situación de incertidumbre generalizada, hemos tratado de imaginar soluciones de emergencia que respondan a la excepcionalidad cultural y educativa que vivimos. Abordamos este proyecto siguiendo la estela de las palabras de un gran dramaturgo:

Entendemos que el regreso a la normalidad educativa va a necesitar de espacios culturales en vivo que nos reconstruyan como seres sociales y nos permitan expresar las emociones experimentadas. Creemos que es necesario reconvertir el proyecto del Teatro Beñat Etxepare para contribuir a acompañar a los centros escolares, celebrar la salida del confinamiento y disfrutar de la vida en comunidad.

Los niños y las niñas son sujetos de derecho, no son solamente ciudadanos y ciudadanas del futuro, sino que lo son también del presente.

Por ello vamos a proponer fórmulas alternativas para establecer un camino de regreso del público al Teatro. La Red de Teatros Municipal y Teatro Paraíso están plenamente comprometidos con los usuarios y usuarias del proyecto y van a trabajar activamente para que la vuelta al colegio signifique también el reencuentro con la Cultura y las Artes en Vivo.



## GIZARTE ETA HEZKUNTZA NEURRIAK

*Hala ere, jakin badakigu ikusleen proiekturako itzule-  
ra ez dela berdina izango heziketa-maila guztietan.*

### HAUR HEZKUNTZA

*Ikusle gazteak antzokira eramateko zailtasunaren au-  
rrean, artistek ikastetxeetan antzeztea proposatzen dugu.*

### LEHEN HEZKUNTZA

*Beñat Etxepare Antzokiaren programazioa deszentra-  
lizatu da, eta antzezpenak Felix G. Petite, Federico  
García Lorca, Jesús Ibáñez de Matauco Antzokietan  
eta Zabalgana Gizarte-Etxean ere egingo dira.*

*Hala ere eskola garraioa erabili behar duten ikaste-  
txeek %50eko laguntza izanen dute.*

### BIGARREN HEZKUNTZA

*Ikastetxetik Beñat Etxepare Antzokiraino joateko, ga-  
rraioaren kostuaren %30a estaltzen duen laguntza ja-  
rriko dugu abian.*

*Neurri guztiak malgutasunez eta irudimenez itundu  
beharko dira partaide guztien artean eta pandemiaren  
bilakaeraren arabera.*

## PREBENTZIO-NEURRIAK

### ANTZOKIETAN

*Paraiso Antzokiak eta Udalaren Antzerki Sareak jar-  
duera eszenikora segurtasunez itzultzeko protokolo  
bat landu dute*

*Antzoki guztietako edukiera osoa% 50era  
murriztuko da, eta gela bakoitza bizikidetz-  
unitatetzat hartuko da. Ikusleek maskarak  
erabili beharko dituzte*

*Programatutako ikuskizun bakoitzak bere  
Covid-19 protokoloa du, talde artistikoaren  
eta publikoaren arteko segurtasun-tarteak  
errespetatuz.*

*Ikusleei arreta ematen dieten langileek da-  
gozkien NBEak erabiliko dituzte.*


*Erabili beharreko espazio bakoitzean, ardu-  
radunak sarrera eta irteerarako prestatu-  
tako protokoloa aplikatuko da.*

### IKASTETXEETAN

*Ikastetxeetan egiten denean, ikastetxe bakoitzaren  
protokoloa errespetatuko da, publikoa eta unean une-  
ko osasun-araudia kontuan hartuta (edukiera mu-  
rriztea, urruntzeari aurrea hartzeko neurriak, etab.).  
Taldea artistikoari dagokionez:*

*Artistek elkarbizitza-unitate bat osatzen  
dute, eta dagozkien NBEekin sartuko dira  
zentroan. Maskarak erabiliko dituzte beren  
egonaldian, antzezpenean izan ezik.*

*Material eszenografikoa, teknikoa eta jan-  
tziak zentrorara sartu aurretik desinfektatzea.*



## MEDIDAS SOCIALES Y EDUCATIVAS

Somos conscientes de que el regreso de los especta-  
dores/as a este proyecto no va a ser igual para todos los  
niveles educativos.

### EDUCACIÓN INFANTIL

Ante la complejidad de trasladar a los pequeños especta-  
dores al teatro, proponemos que los artistas actúen en los  
centros escolares.

### EDUCACIÓN PRIMARIA

Vamos a descentralizar la programación del Teatro Beñat  
Etxepare. Las representaciones se desarrollarán también  
en los Teatros Felix G Petite, Federico García Lorca y Jesús  
Ibáñez de Matauco y en el Centro Cívico Zabalgana.  
Aquellos centros que aun así necesiten utilizar el transporte  
escolar dispondrán de una ayuda del 50%.

### EDUCACIÓN SECUNDARIA

Habilitaremos una ayuda del 30% del coste del transpor-  
te desde el centro escolar al Teatro Beñat Etxepare.  
Cualquiera de estas medidas deberá ser pactada con fle-  
xibilidad e imaginación entre todas las partes implicadas  
y según la evolución de la pandemia.

## MEDIDAS PREVENTIVAS

### EN LOS TEATROS

Teatro Paraíso y la Red Municipal de Teatros han traba-  
jado para elaborar un protocolo para el retorno seguro  
a la actividad escénica.

El aforo total en todos los teatros se reducirá al  
50% y cada aula se considerará como una uni-  
dad convivencial. Los espectadores tendrán que  
usar mascarillas.

Cada uno de los espectáculos programados tie-  
ne su propio protocolo Covid-19 respetando la  
distancia de seguridad entre el equipo artístico  
y el público.

El personal de atención a los espectadores utili-  
zará los EPI-s correspondientes.

En cada uno de los espacios a utilizar se aplica-  
rá el protocolo elaborado por el responsable del  
mismo para entradas y salidas.

### EN LOS CENTROS ESCOLARES

Al realizarse la actividad en los centros escolares se res-  
petará el protocolo de cada centro teniendo en cuenta el  
público y la normativa sanitaria del momento (Reducción  
de aforos, medidas preventivas de distanciamiento, etc...).  
Respecto al equipo artístico:

Los artistas forman una unidad convivencial y  
entrarán al centro con los EPI-s correspondien-  
tes. Utilizarán mascarillas durante su estancia  
excepto en la representación.

Desinfección del material escenográfico, técnico  
y del vestuario antes de la entrada al centro.

# Ikusle izatearen Artea: “Osasun emozionala”

## VITAL-ANTZERKI. KULTURAK HAZTEN LAGUNTZEN DU

*Fundación Vital Fundazioak finantzatutako proposamenaren helburua programazioan parte hartzen duten 3 eta 5 urte arteko ikusleen familien esparruan ekintza artistikoak bultzatzea da.*

*Edizio berezi honetan, antzezpeneak ikastetxeetan egingo dira. Vital Antzerkiak “Bihotz bihotzez” ikuskitunaren antzezpene gehiago bultzatuko ditu osasun-neurriak eta tokien murrizketa bermatu ahal izateko eta, aldi berean, ikusle gazteek kultura eskuratzeko aukera daukatela ziurtatzeko.*

## A ESCENA! PROGRAMA ETA UNESKO ETXEAREKIN LANKIDETZA

*Jarduera eszenikoaren praktikak prestakuntza laguntzen du eta, ikusle izatearen atsegina bizkortzen du.*

*A Escena! Programak 3 proiektu artistiko babestuko ditu, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egiteko.*

*Proiektu hauetan parte hartu ahal izateko erreserba egiten denean espresuki eskatu behar da, horrela eskura dauden baliabideak antolatu baitaitezke.*

*Urrian zehar, behin eskaera guztiak eta baliabideak kontuan hartuta, antolatzaileek interesatuekin harremanetan jarriko dira.*

*Unesco Etxearekin batera “Hezkuntza eta Arteak ikasgeletan” ekintza garatzeko lankidetzaren aurreko ikasurtean hasi egin zen Aranbizkarra Ikastolan. Ekintza alarma-egoeraren ondorioz eten egin zenez, proiektua 2020ko udazkenean amaitu egingo da.*



# El Arte de ser espectador/a: “Salud emocional”

## VITAL-ANTZERKI. LA CULTURA AYUDA A CRECER

El objetivo de esta propuesta, financiada por la Fundación Vital Fundazioa, es impulsar actividades artísticas en las familias de los espectadores y espectadoras de 3 a 5 años que participan en la programación.

En esta edición especial, realizaremos las representaciones en los centros escolares. Vital Antzerki va a apoyar la puesta en escena de un mayor número de representaciones del espectáculo “De todo corazón” con la intención de garantizar las medidas sanitarias y la reducción de aforos pero también el acceso a la cultura de los pequeños espectadores y espectadoras.

## PROGRAMA ¡A ESCENA! Y COLABORACIÓN CON UNESKO ETXEA

La práctica de la actividad escénica contribuye a la formación y activa el placer de ser espectador/a.

El programa ¡A Escena! propone acompañar 3 proyectos artísticos que se realicen en los centros escolares de secundaria.

Para participar en este proyecto es necesario solicitarlo en el momento de realizar la reserva para organizar los recursos disponibles.

Durante el mes de octubre, una vez valoradas las peticiones y los recursos disponibles, la organización se pondrá en contacto con los centros interesados.

La colaboración con Unesco Etxea para el desarrollo de la actividad “Educación y Artes en las aulas” se inició el curso pasado en el Centro Aranbizkarra Ikastola, dado que la actividad quedó suspendida por el Estado de Alarma, se finalizará el proyecto durante el otoño 2020.



## PROIEKTU ARTISTIKOEN EGOITZA

*Ikusleak gure inguruko konpainien sormen-lanei hurbilaraztea proiektuaren lehentasunezko helburu bat da.*

*Denboraldi honetan, tokiko konpainien bi proiektu artistiko bultzatzen jarraituko dugu: Baratza Aretoko "Dena izango naiz" ikuskizunaren amplifikazioa, Europako I Will Be Everthing proiektuaren parte, eta eragile honek horren parte aktiboa da; eta "Úniko" ikuskizunaren sorrera, Iñaki Rikarte arabarrak idatzita eta zuzenduta, eta Teatro Paraíso konpainiak produzituta bertako konpainiatzat.*



## POCTEFA – Mind the Gap Europako proiektua

*2018an POCTEFA – Mind the Gap Europako proiektuarekin bat egin dugu, gure hiriko alfabetatze artistikoa bultzatzeko, Europako beste kide batzuekin batera (Comarca Hoya de Huesca, Centro Aragonés de Recursos para la Educación Inclusiva - CAREI, Huescako Udala, Asociación Navarra Nuevo Futuro, Associació Conarte Internacional, Fundació per la Universitat Oberta de Catalunya, Centres d'Entraînement aux Méthodes d'Education Active d'Aquitaine CEMEA AQUITAINE, Groupe Animation Education Musicale GAM, Ville de Colomiers eta Université Toulouse II Jean Jaurès UT2J). Horrela, 2018-2019 ikasturteetik 2022ko ekainera arte, proiektuak, metodologiak eta ebaluazioak partekatuko ditugu haiekin.*

*Europako proiektu garrantzitsu horrek bultzatuta, jarduera-programa zabala garatuko dugu, horietako batzuk aurreko ikasturtean atzeratu ziren konfinamenduaren ondorioz.*

## RESIDENCIA DE PROYECTOS ARTÍSTICOS

Vincular a los/as espectadores/as con los proyectos creativos de diferentes compañías de nuestro entorno es un objetivo prioritario del proyecto.

Esta temporada vamos a continuar el acompañamiento de dos proyectos artísticos de compañías locales: la ampliación del proyecto de mediación del espectáculo "Dena izango naiz" de la Sala Baratza, que forma parte del proyecto europeo *I Will Be Everthing* del que este agente forma parte activa; y la creación del espectáculo "Úniko" escrita y dirigida por el alavés Iñaki Rikarte y producida por Teatro Paraíso como compañía residente.

## Proyecto europeo POCTEFA – Mind the Gap

En 2018 nos hemos incorporado al proyecto europeo POCTEFA – Mind the Gap, para impulsar la alfabetización artística de nuestra ciudad en compañía de otros socios europeos (Comarca Hoya de Huesca, Centro aragonés de recursos para la Educación inclusiva - CAREI, Ayuntamiento de Huesca, Asociación Navarra Nuevo Futuro, Associació Conarte Internacional, Fundació per la Unibersitat Oberta de Catalunya, Centres d'Entraînement aux Méthodes d'Education Active d'Aquitaine CEMEA AQUITAINE, Groupe Animation Education Musicale GAM, Ville de Colomiers y Université Toulouse II Jean Jaurès UT2J). Así, desde el curso 2018-2019 y hasta junio 2022, compartiremos con ellos proyectos, metodologías y valoraciones.

Impulsados por este importante proyecto europeo se va a desarrollar un extenso programa de actividades, algunas de las cuales quedaron aplazadas en el curso pasado por el confinamiento:

## AURKEZPEN KAFAEA. AZTURA KULTURALAK ETA HEZKUNTZA-INGURUNEA

*Hiriko irakasleekin harremanetan jarri nahi gara berriz ere, umeen, gazteen eta zuzeneko arteen arteko topaketak elkarrekin antola ditzagun.*

*Etapa berri honi hasiera emateko, hiru komunitate-kafe izango ditugu: irakasleek Beñat Etxepare Antzokiaren programazioa eta POCTEFA-Mind The gap proiektuaren jarduera artistikoak eta bitartekaritzak-jarduerak ezagutu ahal izango dituzte, baita Beñat Etxepare Antzokiak errealitate berri honetarako ezarritako neurriak ere.*

*Irailean hiru kafe presentzial egitea aurreikusten dugu Beñat Etxepare Antzokian, posible ez balitz webinar bidez egingo lirateke: osteguna, hilak 3, 10:00etan; asteazkena, hilak 9a, 13:00etan, eta ostirala, hilak 11, 13:00etan.*

## LANTEGIDIDAKTIKOAK. ESPERIENZIA ARTISTIKOA, IKASKUNTZAREN ETA GI- ZARTERATZEAREN ERAGILE

*Irakasleekin egindako lantegi praktiko honen bidez, pedagogia artistikoko eta ikaskuntza kolektiboko esperientzia bat piztu nahi da esperientzia eszeniko batean parte hartuz. Bai begiespen- bai esperientziazio-prozesuak sustatuko dira*

*Hainbat heziketa-mailatara zuzendutako 3 tailer egingo dira:*

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:** tailer bat La Casa del Libro-n, ikuskizunaren fitxan adierazitako datan.
- **Lehen Hezkuntza:** 2 tailer praktiko Beñat Etxepare Antzokian, ikuskizunaren fitxan adierazitako datan.

*Tailer hauetan parte hartzeko, alde aurretik izena eman behar da erreserba egiteko unean, tokiak mugatuta daude eta.*

*Tailer bakoitzean, ikasleekin ekintzak egiteko beharrezkoak diren tresna artistiko guztiak emango dira, baita ikuskizun bakoitzeko gida didaktikoa ere. Azken horiek ondoren Paraíso Antzerkiren webgunean egongo dira eskuragai.*

## CAFÉ PRESENTACIÓN. HÁBITOS CULTURALES Y ENTORNO EDUCATIVO.

Queremos volver a conectar con el profesorado de la ciudad para proyectar juntos reencuentros significativos entre nuestros niños, niñas y jóvenes y las Artes en Vivo.

Comenzaremos esta nueva etapa con varios cafés comunitarios que permitirán al profesorado descubrir la programación del Teatro Beñat Etxepare y las actividades artísticas y de mediación del proyecto POCTEFA-Mind the gap, además de las medidas implementadas por el Teatro Beñat Etxepare para esta nueva realidad.

Prevemos realizar en septiembre tres cafés presenciales en el Teatro Beñat Etxepare, si no fuese posible se realizarían por webinar: Jueves 3 a las 10 horas; miércoles 9 a las 13 horas y viernes 11 a las 13 horas.

## TALLERES DIDÁCTICOS. LA EXPERIENCIA ARTÍSTICA COMO MOTOR DE APRENDI- ZAJE E INTEGRACIÓN SOCIAL

Un taller práctico con el profesorado que pretende activar una experiencia de pedagogía artística y aprendizaje colectivo en torno a la participación en una experiencia escénica. Se activarán procesos tanto de contemplación como de experimentación.

Se realizarán 3 talleres dirigidos a diferentes niveles educativos:

- **Educación Secundaria:** 1 taller en La Casa del Libro en la fecha indicada en la ficha del espectáculo.
- **Educación Primaria:** 2 talleres prácticos en el Teatro Beñat Etxepare en las fechas indicadas en la ficha de cada espectáculo.

Para participar en estos talleres es necesario inscribirse previamente en el momento de realizar la reserva, ya que tienen plazas limitadas.

En cada taller se entregarán los artefactos artísticos necesarios para realizar las actividades con los alumnos y alumnas, así como las guías didácticas de cada espectáculo. Estas últimas estarán disponibles posteriormente en la página web de Teatro Paraíso.

## LANTEGIAK IRAKASLEEN KLAUSTROEKIN.

### **Jakin-min artistikoa eta emozioen adierazpena**

Hezkuntza artistikoa hezkuntza-diseinuko uneak behar ditu, irakasleen esperientzia pertsonaletik abiatuta, esperientzia artistiko berriak eraikitzen edo marrazten dituztenak.

- **Lehen Hezkuntza:**

TEKLAK talde laguntzaileak 3 tailerretako zikloa, 2019-2020 ikasturtean "Artea eta Kultura tresna hezigarritzat" prestakuntza-zikloan parte hartu zuten ikastetxeetako irakasle-klaustroekin egingo ditu.

Osasun emozionalari, eskolarako itzulerari eta esperientzia artistikoari ekingo diegu hausnarketa-ren, proiektu baten ezarpenaren eta ebaluazioaren ikuspuntuetatik.

Aldi berean, Baratzako artistek 5 ikastetxeko heziketa-maila zehatz bateko ikasgeletan bitartekaritza-proiektua garatuko dute. Etorkizuna irudikatzean izango du oinarria 5 saiotan.

Erreserba egiteko epea zabalik dago plazak bete arte.

Harremanetan jartzeko: TEKLAK:

Irene Intxausti Basilio. [iintxausti@teklak.org](mailto:iintxausti@teklak.org).

Telefono zk. 623 177 261.

- **Haur Hezkuntza:**

"Bihotz Bihotzez" ikuskizunean oinarritutako tailerra, honako gai hauekin lotutako kontuak landuko dituen: kultura-alfabetatzea, ikusleen sortzeko begirada, eta esperientzia artistikoa.

Harremanetan jartzeko: ESTITXU BEISTEGUI

Telefono zk: 945 274 284

Berlaratzen direnek beren gelarako sortzeko materialen pack bat jasoko dute. Horri esker, haurrekin esperientzia eraldatzaileak bultzatu ahalko dituzte jakin-min artistikoaren eta izandako emozioen adierazpenaren inguruan.



## TALLERES CON LOS CLAUSTROS DE PROFESORADO.

### **Curiosidad artística y expresión de las emociones.**

La Educación artística necesita momentos de diseño educativo en los que, partiendo de la experiencia personal de los y las docentes, se construyan o dibujen nuevas experiencias artísticas.

- **Educación Primaria:**

El equipo colaborador TEKLAK realizará en los centros escolares un ciclo de 3 talleres, con el claustro de profesores y profesoras de los centros que participaron en el curso 2019-2020 en el ciclo formativo "El Arte y la Cultura como herramientas educativas". Se abordarán temas como la salud emocional y la vuelta al cole y la experiencia artística desde la reflexión, la implantación de un proyecto y la evaluación.

Paralelamente el personal artístico de Baratzta desarrollará un proyecto de mediación con las aulas de un mismo nivel educativo de 5 centros. Este tomará como inspiración la idea de imaginar el futuro a lo largo de 5 sesiones.

Reserva abierta hasta completar plazas.

Contacto: TEKLAK: Irene Intxausti Basilio.

[iintxausti@teklak.org](mailto:iintxausti@teklak.org). Tnfo. 623 177 261.

- **Educación Infantil:**

Un taller inspirado en el espectáculo "De todo corazón", abordando temas relacionados con la alfabetización cultural, la mirada creativa de los espectadores y espectadoras, y la experimentación artística. Contacto: ESTITXU BEISTEGUI Tnfo: 945 274 284

Los y las asistentes recibirán un pack de materiales creativos para su aula que les permitirá impulsar experiencias transformadoras con sus niños y niñas en torno a la curiosidad artística y la expresión de las emociones vividas.



## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEENTZAKO ARTE- ETA HEZKUNTZA-IKASTAROAK

*Oraingo eta etorkizuneko Haur Hezkuntzako irakasleek hezkuntza artistikoan duten trebakuntzan jarri nahi da arreta.*

*Udazkenean, "Arte eta hezkuntza" ikastaroa eskainiko zaie Dramatizazio Minorraren ikasleei, UPV/EHU Unibertsitatearen Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakasten den Haur Hezkuntzako Graduaren esparruan.*

*Datak: 2020ko urriak Unibertsitatean eta KunArten.*

## IKUSLEENTZAKO SARIAK

*2020/2021 ikasturtean, Beñat Etxepare Ikusleentzako Sariaren XXIV. edizioa antolatuko da. Sariak denboraldiamaierako jaialdian emango dira, 2021eko ekainean. Bertako hainbat artista hartuko dute parte. 2019/2020 ikasturteko edizioa bertan behera geratu zen, ikastetxeak itxita zeudelako.*

*Aipatutako sarietan parte hartzeko, ikuskizunaren ondoren sariaren triptikoak (irakasleei emango zaizkienak) igorri beharko zaizkigu, bertan ikusitako ikuskizunari buruzko iritziak, irudiak, iradokizunak, kritikak, etab. azalduz. Gutunak honako helbide honetara bidali beharko dira: **Paraiso Antzerkia - Abetxuko Pueblo 14 - 01013 Vitoria-Gasteiz.***

*Eta honetako ikuslearentzako sariaren hartzearen epea 2020ko abenduaren 30ean amaituko da.*

*Bost sari mota emango dira:*

- **Ikusleei:** bost sari indibidual adin maila bakoitzeko, guztira 20 sari eskainiz. Sariak honako opari hauetaz daude osatuta: Vital Fundazioak eta Beñat Etxeparek opari bana emango dute, eta Gasteizko Udalak, Principal Antzokirako sarrera-txartelak. Baita, maila bakoitzarentzako beste sari berezi batzuk emango dira ere.
- **Ikastetxeei:** ikuslearen iritziaren inguruan lan interesgarria egin duten Ikastetxeei zuzendutakoak. 3 sari emango dira, honako opari hauetaz osaturik: La Casa del Libro Liburudendaren liburu sorta bat eta Paraisok emango dituen datorren denboraldirako 25 sarrera-txartelak osatutako abonua bat.
- **Irudi grafiko onenari:** ikusle batek antzerkia irudikatuz egindako irudi grafiko onenari opari bat emango dio EITB-ek.
- **Antzerki kritika hoberenari:** DBH-ko ikasle batek egindako antzerki kritika hoberenari. El Correo egunkariak emandako saria.
- **POCTEFA – Mind the Gap** saria bere hezkuntza-proiektuaren barruan hezkuntza artistikoko ekintzak garatzean izan duen inplikazioagatik gailendu den ikastetxearentzat.

## CURSOS ARTE Y EDUCACIÓN PARA EL PROFESORADO DE EDUCACIÓN INFANTIL

Se pretende incidir en la formación en Educación Artística del profesorado de Educación Infantil, presente y futuro.

En otoño se va a realizar el curso "Arte y Educación" para los alumnos/as de Minor de Dramatización, correspondiente al Grado de Educación Infantil impartido por la Facultad de Educación y Deporte de la UPV/EHU.

Fechas: octubre 2020 en la Universidad y en KunArte.

## PREMIOS AL ESPECTADOR/A

Se convoca para el curso 2020/2021 la XXIV edición de los Premios Beñat-Etxepare al espectador, que se entregarán en la fiesta final de temporada, en Junio de 2021. Esta contará con la intervención de diversos artistas locales. La edición correspondiente al curso 2019/2020 quedó suspendida al estar cerrados los centros escolares.

Para participar en dichos premios, es necesario remitir después de la representación los trípticos del premio (que se facilitarán a los/as profesores/as) incluyendo opiniones, imágenes, sugerencias, críticas, etc., respecto del espectáculo visto. Las cartas han de enviarse a: **Teatro Paraíso – Abetxuko Pueblo 14 – 01013 Vitoria-Gasteiz.**

El plazo para la recepción de los premios al espectador de esta etapa del curso finaliza el 30 de diciembre de 2020.

Se concederán cinco tipos de premios:

- **A los espectadores/as.** Cinco premios individuales por cada nivel de edad hasta un total de 20 premios. Estos consistirán en un regalo de Fundación Vital Fundazioa, otro del Beñat Etxepare y entradas para el Teatro Principal aportadas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. También existirán varios premios finalistas por nivel con un regalo sorpresa.
- **A los Centros Escolares** que hayan realizado una labor más interesante en relación a la opinión del espectador/a. Se concederán 3 premios consistentes en un lote de libros otorgado por la librería Casa del Libro y un abono de 25 entradas aportadas por Teatro Paraíso para la próxima temporada.
- **A la mejor imagen gráfica** realizada por un espectador/a representando el teatro. Premio otorgado por EITB.
- **A la mejor crítica teatral** realizada por un alumno/a de ESO. Premio otorgado por el periódico El Correo.
- **Premio POCTEFA – Mind the Gap** al centro escolar que más haya destacado por su implicación en el desarrollo de acciones de educación artística dentro de su proyecto educativo.





**DBH-rako ikuskizuna**  
**Espectáculo para ESO**

**LANTEGIA IRAKASLEEKIN**

Azaroaren 10ean, asteartea, 18etan  
Martes 10 de noviembre. 18:00 h.

Lugar: La Casa del Libro

Entrega de guía y materiales para el aula

## FACTORIA TEATRO-k

aurkezten du / presenta

# NOVELAS EJEMPLARES la española inglesa y las dos doncellas

**Bertsioa / Versión:** Diana Luque

**Egilea eta Zuzendaria / Autor y Director:** Gonzala M. Sherman

**Antzezleak / Intérpretes** Iván Ugalde, Paloma Vidal, Teresa Espejo

*Bi eleberri, protagonistatzat emakumeak dituztenak eta baterako ardatz batekin: bidaia.*

*Cervantesek bere familiako emakumez inguratuta eman zuen bizitza, arrebak, emaztea, amorantea eta alaba. Ongi ezagutzen zituen guztiak, bazuen haien kezken, desiren eta sotiltasunen berri. Era berean, Cervantesek mandoen bizkar gainera igota, itsasoetan murgilduta, batetik bestera, gorteari jarraituz, jarduteko lekuen bila edota bidaiatuz pasa zen mundu honetatik. Emakumeak eta bidaiak dira gure ereduazko eleberrien gaia.*

- “La española inglesa” izeneko eleberrian, Isabel, Cadizeko neskato bat, bahitu egiten dute militar ingelesak eta Londresera eramaten dute. Haren edertasunak inguruan duen engranaje oro mugitzen du. Alde batetik, Ricaredo bere senargaiaren inimiziaz-bidaia eta, beste alde batetik, berea, bere lur desiratuarekin bat egiteko xedez.
- “Las dos doncellas” izeneko eleberrian bi neskatxa gizonen mozarrotzen dira maitalearen bila atera eta galdutako ohorea berreskuratu asmoz, Sevillako herrietatik Bartzelonako portura arte bidaiatuz. Bizitzan barnako ibilbidea da, ibilaldiak protagonisten izaerak zehazten ditu, moldeatu egiten ditu, aberastu eta heldu.

*Faktorian ere gure bidaia partikularra proposatzen dugu “denboraz haraindiko” bi komikoen eskutik, XVII. mendean geroztik oholtzetara atxikita jarraitzen dutenak lengoaiaren ezberdin batetik istorioak kontatuz, baliabide ezberdinak erabiliz, hala itsasontziz itsasoan barna nola zaldiz lur gainean.*

*Guztiok barrura!!! Bagoaz. Ekipaiarik gabe baina fardela desirez gainezka. Gurea, goza dezazueta bizitza ematen duten komiko hauekin.*

Dos novelas con féminas como protagonistas y con un motor común: el viaje.

Cervantes pasó la vida rodeado de las mujeres de su familia, hermanas, esposa, amante e hija, las conocía bien, sabía de sus preocupaciones, deseos y sutilezas. Cervantes también pasó por este mundo a lomos de mulas, surcando mares, de un sitio a otro, siguiendo a la corte, buscando donde emplearse, viajando... Mujeres y viajes son el tema de nuestras Novelas Ejemplares.

- En “La española inglesa”, Isabel, una niña gaditana, es raptada por los militares ingleses y llevada a Londres. Su belleza mueve todos los engranajes que la rodean, por un lado, el del viaje iniciático de su prometido Ricaredo y por otro lado el suyo propio para reencontrarse con su anhelada tierra.
- En “Las dos doncellas” dos mujercitas, se disfrazan de hombre para salir en busca de su amado y recuperar la honra perdida, viajando desde los pueblos sevillanos hasta el puerto de Barcelona. El recorrido es vital, el trayecto perfila las personalidades de las protagonistas, las moldea, las enriquece y las madura.

En Factoría Teatro también proponemos nuestro particular viaje de la mano de unos cómicos “transtemporales” que desde el siglo XVII siguen pegados a las tablas contando historias desde un lenguaje distinto, con diferentes recursos, tanto en barco por la mar como a caballo por tierra.

¡¡Todos a bordo!! Partimos. Sin equipaje pero con el hatillo lleno de deseos. El nuestro, que disfrutéis con estos cómicos que se dejan la vida en ello.

**Hizkuntza / Idioma** Gaztelaniaz / Castellano

**Beñat Etxepare antzokian** azaroak 17 (9:00 – 12:00) azaroak 18 (9:00-12:00)

**Iraupena / Duración aprox.** 75 min.

ANTZOKIAK / TEATROS:  
Beñat Etxepare,  
F. Petite,  
García Lorca,  
J. I. Matauco,  
C.C. Zabalzana G.E.



*Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloetarako Ikuskizuna*  
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Primaria

## TEATRO PARAISO ANTZERKIA-K

aurkezten du / presenta

LANTEGIA IRAKASLEEKIN

Azaroaren 3an, asteartea, 18etan

Martes 3 de noviembre. 18:00h

Tokia: Teatro Beñat Etxepare Antzokia

Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

## ÚNIKO

*Egilea eta Zuzendaria / Autor y Director* **Iñaki Rikarte**

*Antzezleak / Intérpretes* **Aitor de Kintana o Tomás Fdez. Alonso, Ainara Unanue, Maite Bayón**

*Paul seme bakarra da, bere etxeko erregea, alegia. Irati arrebaren jaiotzaren ondorioz, maitea izateari uzteko beldur handia izango du, eta horrek familiaren egonkortasuna mehatxatuko du.*

*ÚniKo 6 urtetik gora dituzten edozeinentzako ikuskizuna da; haur batek bere anai-arreba jaiotzean izan dezakeen jeloskortasuna, eta horren eragina bere ingurunean, erakustea du helburu. Txotxongiloak eta antzerki errealista nahastuz, jeloskortasunari helduko diogu, eta aurrez aurre begiratuko dugu gaia umore-sena inoiz galdu gabe.*

*Paul, gurasoak, arreba Irati, amona, Paulen andereñoa, eta Richi (Paulen hartz-peluxea, bere kontzientziaren alter ego) igaroko dira antzertokitik, familiako ikuskizuna eratuz. Haurrek zein helduek, guztiek hainbat egoera eta pertsonaiatan ikusi ahal izango dute bere burua.*

*Une atsegina izateko baliagarria izatea espero dugu eta, aldi berean, guztiok elkarbizitzari, hezkuntzari, autoestimuari, tristetziari, edo atxikimenduari buruz hausnartu ahal izango dugu.*

*Maite Bayón interpreterik onenaren FETEN 2020 saria. Teatro Paraíso Antzerkiak, Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Sari Nazionala jaso zuen 2012an.*

Paul es hijo único y el rey de su casa. El nacimiento de su hermana Irati provocará que un miedo íntimo a dejar de ser querido se apodere de él amenazando la estabilidad familiar.

ÚniKo es un espectáculo para todos los públicos a partir de 6 años que pretende ser un reflejo de lo que los celos por el nacimiento de un hermano pueden provocar en un niño y en su entorno. Mezclando las técnicas del títere y del teatro más realista planteamos el inquietante tema de los celos, mirándolos de frente en toda su crudeza, aunque sin perder nunca el sentido del humor.

Por el escenario haremos desfilar a Paul, a sus padres, a su hermana Irati, a su abuela, a la maestra de Paul y a Richi -su oso de peluche y alter ego de su conciencia-, con la voluntad de hacer un espectáculo familiar en su sentido más amplio, pues tanto los niños como los adultos encontrarán situaciones y personajes en los que sentirse reconocidos.

Esperamos que sirva para pasar un buen rato y, de paso, reflexionar todos juntos acerca de temas como la convivencia, la educación, la autoestima, la tristeza o el apego.

Premio FETEN 2020 a la mejor intérprete, Maite Bayón. Teatro Paraíso es Premio Nacional de las Artes Escénicas para la Infancia y la Juventud 2012.

*Hizkuntza / Idioma* **Euskaraz edo Gaztelaniaz / Euskera o Castellano**

*Beñat Etxepare antzokian:* **azaroak 10 (10:30 – 15:30) azaroak 11 (10:30), azaroak 12 (10:30 – 15:30)**

*García Lorca antzokian:* **azaroak 17 (10:30 – 15:30) azaroak 18 (10:30)**

*J. I. Matauco antzokian:* **azaroak 24 (15:30) 25 (10:30 – 15:30)**

*Zabalzanan:* **abenduak 10 (10:30 – 15:30)**

*F. Petite antzokian:* **abenduak 14 (10:30 – 15:30) 15 (10:30 – 15:30)**

*Iraupena / Duración aprox.* **65 min.**



Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako Ikuskizuna  
Espectáculo para Primer Ciclo de Primaria

## YARLEKU ANTZERKIA-k

aurkezten du / presenta

LANTEGIA TRAKASLEEKIN

Urriaren 29an, osteguna, 18etan  
Jueves 29 de octubre. 18:00 h.

## ETXERIK TXIKIENA

Tokia: Teatro Beñat Etxepare Antozkia  
Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

Egilea / Autorar **Maialen Díaz**

Zuzendaria / Dirección **Rosa Díaz**

Antzezleak / Intérpretes **Laura Villanueva Arteaga, Eva Azpilikueta Martínez**

“Maleta bat eta sagarrondo bat hartuta eta laster itzultzeko gogoz Bettinak bere etxetik alde egiten du, gerrak eragiten duen beldurraz eta bonben zarata hotsaz deskantsua hartzeko. Bere “etxe berrira” eta bere egoera berrira heltzen, baina, ez dira izango berak espero bezalakoak. Norma, bere antzeko egoeran dagoen neskatok batek, istorio honetan zehar lagunduko dio eta elkarrekin, halabeharrez, zailtasunei aurre egiten lagunduko dien laguntasuna eraikiko dute.”

Ikuskizun honek haur errefuxiatuek haien jaioterritik alde egiterakoan bizi duten ezbaia jorratzen du, haien helmuga zein izango den ez dakitenean. Obra honek deserrotzean sakontzen du, baita momentu latzetan harreman pertsonalek daukaten garrantzia ere. Etxe bat lasaitasunez eta konfidantzaz egoteko lekua baldin bada, zein da horren unitate minimoa? Agian bersarkada bat etxerik txikiena izan daiteke...

Ikuskizun honek emakumezkoen interpretazio onenaren saria jaso zuen Feten 2019an, Eva Azpilikuetaarentzat. Zuzendariak, Rosa Díaz, Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Sari Nazionala jazo zuen 2011n.

“Con una maleta, un pequeño manzano y el deseo de volver pronto, Bettina deja atrás su hogar para descansar del ruido de las bombas y del miedo que provoca la guerra. Al llegar a su “nueva casa” y a su nueva situación, se da cuenta de que nada es como imaginaba. Norma, otra niña en igual situación, será quien la acompañe en esta historia, construyendo entre ambas una amistad que les permitirá hacer frente a las dificultades que van sobreviniendo”.

El espectáculo aborda la incertidumbre que viven los niños y niñas refugiados tras abandonar su lugar de origen sin saber cuál va a ser su destino. La obra trata sobre el desarraigo y la importancia de los vínculos interpersonales en situaciones de vulnerabilidad. Si un hogar es el lugar donde un individuo habita con sensación de seguridad y calma, ¿cuál es la unidad mínima para ello? Tal vez un abrazo pueda ser la casa más pequeña...

Este espectáculo recibió el premio a la mejor interpretación femenina en FETEN 2019 para Eva Azpilikueta. Su directora, Rosa Díaz, es Premio Nacional de las Artes Escénicas para la Infancia y la Juventud 2011.

Hizkuntza / Idioma **Euskaraz - Euskera**

Beñat Etxepare antzokian: **azaroak 2 (15:30) azaroak 3(10:30 - 15:30) eta azaroak 4 (10:30)**

Zabalganen **azaroak 12 (10:30 - 15:30)**

F. Petite antzokian **azaroak 13 (11:00 - 15:30)**

García Lorca antzokian **azaroak 24 (10:30 - 15:30)**

J. I. Matauco antzokian **azaroak 26 (10:30 - 15:30)**

Iraupena / Duración aprox. **55 min.**



Haur Hezkuntzarako Ikuskizuna  
Espectáculo para Educación Infantil

LANTEGIA IRAKASLEEKIN

Azaroaren 9tik 27ra. ikastetxeetan

*Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira*

## TEATRO PARAISO ANTZERKIA-k

aurkezten du / presenta

# BIHOTZ BIHOTZEZ

*Egilea / Autora* **Rosa A. García**

*Zuzendaria / Dirección* **Tomás Fdez. Alonso**

*Antzezleak / Intérpretes* **Rosa A. García (clown), Meggy Khabourdzania (biolina)**

*Bihotz Bihotzez-ek haur txikiak antzerki ikusle izateko hezteko erronka du, errepresentazioaren baldintzei tentu handiz erreparatura.*

*Haurrak aretora heltzen direnean aktoreak eta biolinistak ongi etorria ematen diete, "mundu magiko" berri horretan murgiltzeko gidari atsegin bat izan dezaten.*

*Gero, momentu gozo eta delikatu batean, aktorea pailazoz jantziko da bere aurrean. Handik aurrera antzerkiaren abentura hasiko da.*

*Dekoratu txiki batean, arraultza beretik sortzen diren pailazo eta txori baten istorioa garatzen da. Bikiak bezain urkoak, abentura txikiak bizi dituzte elkarrekin beren sentimenduak arakatuz: samurtasuna eta gutzia, beldurra eta alaitasuna.*

*Ikuskizunaren sotiltasunak, haurrak barneratu eta liluratzen dituen unibertso poetiko batera garamatza.*

*Ikuskizuna amaitzen denean, "Itzultzeko" unea iritsi da. Agur esateko ordua iritsi da. Biolina entzuten duen bitartean, pailazoak haurrak irteerara eramaten ditu, itzulerako bidean lagunduz.*

*Nazioarteko bira luzea duen ikuskizuna.*

*De todo Corazón* pretende iniciar a los más pequeños como espectadores teatrales, poniendo un especial cuidado en las condiciones en las que se desarrolla la representación.

Cuando los niños llegan a la sala, la actriz y la violinista les reciben y les acompañan en el camino de entrada al "mundo mágico", dándoles las bienvenida con su sonrisa y su música.

Después la actriz se caracteriza como payaso delante de los niños, en un momento de gran delicadeza. Y a partir de ese momento comienza la aventura del teatro.

En un pequeño decorado se desarrolla la historia de un payaso y un pájaro que nacen del mismo huevo. Cómplices como dos gemelos, viven juntos pequeñas aventuras explorando sus sentimientos: entre la ternura y la codicia, el miedo y la alegría.

La sutileza del espectáculo nos transporta a un universo poético, en el cual los niños navegan con confianza y admiración.

Cuando el espectáculo llega a su fin es el momento de "regresar". Llega la hora de la despedida. Mientras suena el violín, el payaso conduce a los niños hacia la salida, acompañándoles en su camino de vuelta.

Un espectáculo con una larga gira internacional.

*Hizkuntza / Idioma* **Hitzik Gabe / Sin texto**

*Datak / Fechas* **Abenduak: 2,3,4,9,10,11,14,15,16,17,18,21,22**

*Ordutegia / Horario* **Dentro del horario del centro. (Mañana o tarde)**

*Iraupena / Duración aprox.* **35 min.**

# PROGRAMAZIO GUNEAK

## ESPACIOS DE PROGRAMACIÓN

**Edukiera murriztea, osasunari buruzko gomendioen arabera.  
Reducciones de aforo según recomendaciones sanitarias.**



### **Teatro Beñat Etxepare Antzokia**

(C. Cívico Iparralde)

Helbidea / Dirección: Plaza Zuberoa, 1



### **Teatro Félix Petite Antzokia**

(C. Cívico Ibaiondo)

Helbidea / Dirección: Calle Landaberde, 31.



### **Teatro Federico García Lorca Antzokia**

(C. Cívico Lakua)

Helbidea / Dirección: Calle Senda de los Echanove, 3.



### **Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia**

(C. Cívico Hegoalde)

Helbidea / Dirección: Calle Alberto Schommer, 10



### **Teatro C.C. Zabalgana**

(C. Cívico Zabalgana)

Helbidea / Dirección: Juan Gris Kalea, 4



Haur Hezkuntzako Ikastetxeetako

**erabilera anitzeko gelak.**

**Salas polivalentes**

de Centros Escolares de Educación Infantil.

# ARGIBIDEAK

Ikasturte berriaren hasieran, pandemiak eragindako egoera igaro ondoren ikasgeletara itzultzeko udazkenerako programazioa aurkeztuko zaie ikastetxeei.

Horretan, udaberrian atzeratu ziren ikuskizunak berreskuratu dira, zenbait nobedaderekin batera. Beste konfinamendu bat gertatuz gero, ukitutako udazkeneko emanaldiak hurrengo udaberrira mugituko dira.



## SALNEURRIA

Sarrera orokorraren kostua ikasle bakoitzarentzat **5,00** eurokoa da. Prezio hauek ezartzeko, antolakuntzan esku hartu duten erakundeek diru-laguntzak eman dituzte, izan ere kostu erreala ezarritako prezioaren gainetik dago.

Irakasleek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.



## ESKOLA-GARRAIOA.

Nahiz eta antzezpenak deszentralizatu eskola-garraioa behar duten ikastetxeak badaude, garraiorako laguntzak jasotzeko aukera izango dute zenbatekoaren %50a ordaintzeko Lehen Hezkuntzan, eta %30a Bigarren Hezkuntzan.

Erreserba egiteko unean eskatu beharko da laguntza, eta helduera-ordenaren arabera esleituko da horretarako zuzendutako aurrekontua amaitu arte.



## ERRESERBAK

Eserlekuen erreserba ondoko egunetan egingo da: **Irailaren 14tik 25era (9:00etatik 15:00etara)**

**Telefono bidezko erreserbak:** antolatzailearekin harremanetan jarri beharko da, ikastetxearen datuak, erreserbatu nahi den toki kopurua, arduraduna eta aukeratutako ikuskizuna adieraziz. Tel. 945 274 284

**Online erreserbak:** gure web orrian <http://www.teatroparaiso.com/eu/benat-etxepare-antzokia/sarrerak-erreserbatu> aurkitzen den formularioa bete beharko duzu. Ondoren antolakuntzak jaso dela berretsiko du.

Erakundeak ikuskizunetara joateko asmoa duen baieztatu beharko du e-mailez.

Eserlekuak, eskaera ordenaren arabera banatuko dira, hauek agortu arte.



## SARRERA-TXARTELAK ORDAINDU ETA JASOTZEA

Ikastetxeek, sarreren zenbatekoaren %100a sartu beharko dute hamabost egun lehenago Kutxabank-eko edozein bulegotan.

- Edizio honetan ez dira paperezko sarrerik emango.
- Antolakuntzak faktura bidaliko dio ikastetxe bakoitzeko erreserbaren arduradunari, berretsitako ikasle kopurua-  
ren arabera zenbatekoarekin. Ez da dirurik itzuliko antzokira joan aurretik jakinarazi ez bada eta hartarako ezinbesteko arrazoirik ez badago (epidemiak, klima...).
- Erreserben ordainketan kontzeptu gisa, fakturaren zenbakia adierazi beharko da.

KONTU ZENBAKIA:

**KUTXABANK ES83 2095 3112 27 1092322915**

HARREMANETARAKO:

**ESTITXU BEISTEGUI**

Erreserbak egiteko telefonoa: **945 274 284**

Emanaldi-garaian deitzeko telefonoa: **688 927 700**

E-mail: **benat-etxepare@teatroparaiso.com**

Teatro Paraíso – **Abetxuko Pueblo 14 - 01013 VITORIA-GASTEIZ**

# INFORMACIÓN

Al comienzo del nuevo curso se presentará a los centros escolares la programación de otoño para el regreso a las aulas tras el paréntesis provocado por la pandemia.

En ella se han recuperado los espectáculos aplazados en primavera junto a otras novedades. Si se produjera un segundo confinamiento las funciones de otoño afectadas se trasladarán a primavera.



## PRECIO

El coste de la entrada general para cada alumno/a es de **5,00** euros. Estos precios están subvencionados por las entidades organizadoras, ya que su coste real es superior al precio establecido.

La entrada para el profesorado es gratuita.



## TRANSPORTE ESCOLAR.

Para aquellos centros que a pesar de la descentralización de las representaciones precisen de transporte escolar se habilitarán ayudas al transporte por el 50% del importe en Educación Primaria y del 30% en Educación Secundaria.

La petición de la ayuda ha de realizarse en el momento de la reserva y se adjudicarán por orden de llegada hasta agotar la partida presupuestaria destinada a este fin.



## RESERVAS

La reserva de localidades se realizará **del 14 al 25 de Septiembre (de 9:00 a 15:00 horas)**

**Reservas telefónicas:** contactar con la organización, señalando los datos del centro, número de plazas reservadas, persona responsable y espectáculo elegido. Tfno. 945 274 284

**Reservas on-line:** rellenar el formulario que se encuentra en nuestra página web [www.teatroparaiso.com/es/teatro-benat-etxepare/reserva-de-entradas](http://www.teatroparaiso.com/es/teatro-benat-etxepare/reserva-de-entradas). La organización enviará una confirmación de recepción.

Posteriormente la organización confirmará por e-mail la asistencia a los espectáculos.

Las plazas se adjudicarán por estricto orden de recepción, hasta agotar las mismas.



## PAGO Y ENTREGA DE ENTRADAS

Los centros deberán efectuar el ingreso del 100 % de las entradas con quince días de antelación, en cualquiera de las oficinas de Kuxabank.

- En esta edición no se emitirán entradas en papel.
- La organización enviará la factura a la persona responsable de la reserva de cada centro escolar por el importe correspondiente al número de alumnos/as confirmados. No se realizarán devoluciones que no se hayan comunicado con antelación a la asistencia al teatro y que no estén justificadas por causa mayor (epidemias, climatología...)
- Como concepto en el pago de las reservas se deberá hacer constar el número de factura.

Nº DE CUENTA:

**KUTXABANK ES83 2095 3112 27 1092322915**

CONTACTO:

**ESTITXU BEISTEGUI**

Tfno de reservas: **945 274 284**

Tfno durante las funciones: **688 927 700**

E-mail: **benat-etxepare@teatroparaiso.com**

Teatro Paraíso – **Abetxuko Pueblo 14 - 01013 VITORIA-GASTEIZ**

Zuen antzerki  
zaletasunarekin bat  
egiten dugu



**Compartimos vuestra pasión  
por el teatro**



**Vital**

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

[www.fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus)